

Etniker Euskalerria



Etniker

Cincuenta años de investigación etnográfica en Vasconia

CAPÍTULO 8

ETNIKER EUSKALERRIA

Etniker

Cincuenta años de investigación etnográfica en Vasconia

CAPÍTULO 8

Coordinación:

Naiara Ardanaz-Iñarga



Universidad
de Navarra

EUSKAL HIZKUNTZA
ETA KULTUR KATEDRA



Etniker Euskalerria, 1

Imagen de cubierta:
Reunión en St. Martin d'Arbourue-Isturitz (2011).

Este libro ha contado
con financiación del Gobierno de Navarra.



© Etniker Euskalerria, 2021.

Diseño y distribución:

Lamiñarra

(laminarra@gmail. com)

Maquetación:

David Mariezkurrena Iturmendi

D. L.: NA 1717-2021

ISBN: 978-84-09-35513-6

Imprime: Rodona Industria Gráfica

Pamplona/Iruñea

8. Etniker Bizkaia (1973-2020)

Gurutze Ezkurdia Arteaga

Etniker Bizkaia

Frankismoaren aro beltzean, Bigarren Euskal Pizkundearen garaiak bizi ziren. Euskal gizartean ematen ari zen aldaketa sakonaren aurrean, Euskal Herriaren historia eta kulturaren ezagutzaren gosea zegoen eta testuinguru horretan, ikerketa etnografikoa bultzatzeko sortu zen Etniker. Aukera, 1964ean, Navarrako Unibertsitateak «Catedra de Lengua Cultura Vasca» sortu zuenean, On Jose Migel Barandiaran gomitatu zuen, euskal kultura eta etnografia irakasteko. Egitasmoa Nafarroako Foru Aldundiak diruz lagunduta hasi zen. Maria Amor Beguiristainek kontatzen duen moduan (2011, 321):

«Acorde con el compromiso adquirido con la Diputación Foral, Don José Miguel de Barandiaran fundó Etniker, grupo orientado a reunir y orientar a los alumnos que tras seguir la docencia estaban interesados en aplicar la Encuesta en su localidad de origen».

Egitasmoak jarraipena izan du Etniker taldeen bidez. Ondoren, Arabako Etniker taldea 1971ean, Gipuzkoako Etniker taldea 1972an, Bizkaiko Etniker taldea 1973an eta azkenik Etniker Iparralde 1986.urtean sortu ziren.

Bizkaiko Etniker taldea

Bizkaian, Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegia-n saiakera egin zen baina jarraipen gabekoa izan zen. Ondoren, Derioko Elizbarrutiko Seminarioko Euskal Bibliotekan hasi zen Etniker Bizkaia. On Jose Migelek, 1973o maiatzean aurkeztu zuen egitasmoa, urte bereko uztailaren 10ean ikerketa taldea osatutzat eman zen. Sorrera akta, indusketa lanak egiten ari zen Axlorren (Dima), sinatu zuen.

Taldearen jatorria Derioko Seminarioan egon zen. Garaiotan, Ander Manterolak, orduan Derioko Seminario Nagusiko irakasle-tutorea zenak, euskal kulturari buruzko mintegia antolatu zuen, Don Jose Migelen gidaritzan. Aukera eta egoera aprobetxatuz, kultura ezagutzetan interesa zuten hainbat lagun deitu zituen. Bertan elkartu ziren, besteak beste, Joseba Agirreazkuenaga, Jesus Etxezarraga, Juan Cruz Gorostiza, Juanjo Lejarazu, Gurutzi Arregi, Anton Erkoreka. Euskal Herriko Atlas Etnografikoa osatzen hasi ziren, Don Jose Migelen galdetegiari jarraituz, eta noizean behin elkartuz. Horrela hasi zen Etniker Bizkaian. Beranduago, Zerainen ikertzen ari zen, baina Bilbon bizi zen Karmele Goñi be bertaratu zen, eta beste hainbeste, euren artean, Maria Angeles Alberdi, Unai Martínez, Josetxu Etxegaray, Jose Mari Salbidegoitia, Gorka Aurre, Iñaki Zamalloa, Jesús Urkidi eta Juan Manuel Etxebarria. Etniker taldearen bete beharra Etnografia Ikerketa egitea zen, eta horretarako talde antolatu moduan sortu zen. Helburua, tokian tokiko ikerlariek Don Jose Migelek proposatutako galdetegia euren herrietan jaso eta datu guztien bildumarekin, bizitza tradizionalaren deskribapen osoa egitea zuen helburu.

1973tik 1978ra bitarteko batzarrak, larunbata goizean egiten ziren eta Don Jose Migelek zuzentzen zituen. Hamabost zuzendu zituen. Bertan, metodologiari buruzko saioa egoten zen, eta herri gaiei buruzko aurkezpenen bat, esaterako elikadura, janzkerak, familia, jolasak, eskulanak, ohiko zuzenbide piriniarra, eta abar. Ondoren, lanean zihardutenen artean, ikerketa etnografikoak berak, eragiten zituen arazoei eta esperientziei buruzko elkarriketa. Bukatzeko, lanen planifikazioa egiten zen eta bazkaria.

1977an Labayru Institutua sortu zen euskararen irakaskuntzan eta alfabetatzean aritzeko. Etniker Bizkaia taldeak onartu egin zuen baliabideak partekatzea eta ordutik eta 2020ra arte, partekatu egin da egoitza eta hainbat baliabide, besteak beste, Derioko Euskal Bibliotekaren barruan, Etniker taldeek osatu duten etnografiari buruzko atala. Biblioteka hau 1979an sortu zen, etnografia eta etnologia gaietako argitalpenak jaso eta biltzeko. Bertan, Iberiar penintsulari buruzko zein atzerriko beste herri askotariko ikerketei buruzko liburuak eta argitalpenak aurki daitezke. Gaur egun 2000 monografia inguru ditu eta hainbat aldizkari. Horrez gain, argazki eta material grafikoa biltzen duen laborategia ere bada. Bertan, ikertzaileek egindako hainbat argazki, diapositiba, bideo eta irudi, mapa, eta agiri jaso eta gorde dira.

1983an, Etniker Bizkaiak eta Etniker Gipuzkoak, elkarrekin batera, Eusko Ikaskuntzak, Antropologia eta Etnografiari buruzko Jose Miguel de Barandiaran bekara aurkeztea erabaki zuten, «*Contribución al Atlas Etnográfico de Euskalerrria: Investigaciones en Bizkaia y Gipuzkoa*» izenburuko proiektuarekin. Epaimahaiak aho batez onartu zuen egitasmoa. Bizkaitik parte hartu zuten egileek honako hauek izan ziren: Anton Erkoreka, Zuzendari; Gurutzi Arregi, koordinatzaile; Joseba Agirreazkuenaga, Maria Ángeles Alberdi, Juan Cordon, José María Hormaza eta Ander Manterola.

Atlas Etnografikoa

1987an, Euskal Herriko Atlas Etnografikoa egiteko lehen hitzarmena sinatu zen, Etniker Bizkaiak proposaturiko memorian jasotzen zen egitasmoa jasoz. Hitzarmena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin eta Eusko Ikaskuntzaren bitartekaritzari esker. Urte bereko urriaren 31ean, Ataunen bildu ziren Etniker Euskalerrria taldeen XII. Batzar Orokorrean, On Jose Migelen zuzendaritza pean, Ander Manterolak Etniker Bizkaiaren izenean egitasmoa aurkeztu zien. Bilera horretan Atlas etnografikoaren egitasmoarekin hastea erabaki zen, Etniker taldeek ikerketa gai bera eta aldi berean landuz. Ohiko elikadura eta Haur jolasen gaiak jorratzen hastea onartu zen.

Batzar berean, Don Jose Migelek, Atlasen koordinazioari erraztasuna emateko, lurraldeen arteko Kontseilua osatzea proposatu zuen, eta bertan lurralde bakoitzeko idazkariek urteko txostena aurkeztu eta hurrengo urteko eginbeharrak planifikatu behar zituzten. Lurraldeen arteko Kontseilua honako kideek osatu zuten, On Jose Migel Barandiaran zuzendari, Ander Manterola zuzendariorde; Jose Antonio Gonzalez Salazar eta Isidro Saenz de Urturi Arabako ordezkari; Gurutzi Arregi eta Anton Erkoreka, Bizkaitik; Josetxo Zufiaurre eta Mirentxu Goñi, Gipuzkoatik; Michel Duvert eta Peio Goity, Iparraldetik; Francisco Javier Zubiaur eta Miren Intxausti, Nafarroatik.

Horren ondorioz eta urte batzuk beranduago, 1991ko urriaren 25ean, Etniker Euskalerrria elkarte etnografiko moduan eratu zen, helburu zehatzarekin, Euskal Herriko Atlas etnografikoa osatzea.

Bizkaiko lurraldean Atlas Etnografikorako galdeketa hainbat herritan egin dira, toki batzuetan osorik, eta beste batzuetan arloka, baina Bizkaiko

lurralde ea osoa hartzen dute: Abadiano, Ajangiz, Amorebieta Etxano, Andra-ka-Lemoiz, Barakaldo, San Migel-Basauri, Begoña-Bilbo, Bermeo, Busturia, Durango, Ea-Bedarona, Galdames, Gernika aldea (Ajangiz, Aju-ria, Arteaga, Gernika, Nabarniz), Getxo, Gorozika, Karrantza, Kortezubi, Lezama, Muskiz, Ondarroa, Orozko, Plentzia, Portugalete, Trapagaran, Urduliz, Zamudio, Zeanuri, Zeberio. Abeltzaintza eta artzaintzaren gaineko tomoa egiteko Bizkaiko artzaintza eta abeltzaintza ohiturazko praktikak jaso dira honakoetan: Anbotoko Mendigunea, Abanto. Zierbena, Galdames eta Muskiz, Aramotx-Belatxikieta, Aramotx-Bernagoitia, Karrantza bailara, Ordunte eta Armañon Mendigunea, Nabarniz, Oiz Mendigunea, Orozkoko mendiak, Gorbea Mendigunea, Sollube mendia, Urdulizko mendiak, Trapagaran eta Trianoko mendiak.


Orain arte argitaratu diren tomoak honako hauek dira: *Casa y Familia en Vasconia*; *La Alimentación doméstica en Vasconia*, *Medicina Popular en Vasconia*, *Ritos del Nacimiento al matrimonio en Vasconia*, *Ritos funerarios en Vasconia*, *Ganadería y Pastoreo en Vasconia*, eta *Agricultura en Vasconia*. Hurrengo tomoa eta azkena, *Calendario tradicional y Religiosidad popular en Vasconia*, oraindik prestatzen eta idazten ari garen lana da.

Etniker Bizkaia Aldizkaria

1975tik aurrera, egiten ziren ikerketa lanak argitaratzeko asmotan, barne boletina argitaratzen hasi zen, hasieran multikopian, eta 1985tik aurrera, inprentan egindako aldizkaria izan da. Hasierako numeroetan metodologiari buruzko oharra eta egin beharrik jasotzen ziren, denon artean ikerketa lanak zehatz eta modu etnografikoan jasotzeko. Hasierako garaietan Atlas-erako egindako ekarpenak Eusko Folklore urtekarian argitaratzen ziren, baina geroago, Etniker Bizkaian jaso dira hainbat lan, aurreko atalean azaldu dugun moduan. Aldizkari honetan, Atlas-erako ekarpenetatik lain, beste gai eta lan batzuk jaso dira ikerketa etnografikoak izan direnak baina ez Atlas-aren osaketara bideratuak. Esaterako Juan Cordonek egindako Eguzki erlojuei buruzko ikerketak, eta beste zenbait gai, ondoren agertuko ditugunak. Guztira 17 numerotan jasotzen dira Bizkaiko lurraldeko herri zein baso edo kaletan jasotako etnografia lan asko, Labayru Insituarekin batera argitaratuak.

Ikertutako arloak

Gaiak multzokatzeko bi irizpide erabili ditugu. Batetik, Atlaseko kapitulu nagusiak hartu ditugu gogoan eta horri buruzko ekarpenak bildu ditugu, bizitzako aroak, jolasak, elikadura, ohiko medikuntza, etxea eta etxearen inguruko ohiturak, eta azkenik nekazaritza, abeltzaintza eta mendietako artzaintza jasotzen dituztenak. Bestetik, beste arlo batzuk lantzen dituzten artikuluak, egindako batzarren eta ekintzen kronikak, etnografiari buruzko metodologia zehatza lantzen dutenak, Bibliografia desberdinak eta gaika jasotzen dutenak, etnografiari buruzko gai orokorrak, hizkuntza eta etnografiaren arteko harremanak eta etnotestoak, Ohiko industria eta lanbideak, erlijioetasuna eta sineskerak, musika eta abestiaren gainekoak.



Grafiko 1. Ikertutako arloen batz bestekoa, ehunekotan.


Gai desberdinak aztertu ondoren, datuak ehunekotan eskaintzen dira. Grafikak argi uzten duena da, Atlasaren gaineko gaiak, bere horretan, ez direla gehien argitaratu direnak aldizkarian, batez ere, hasieran argitaratu ziren tomoei buruzko gaiak, Elikadura eta Ohiko Medikuntzak gutxien duten arloak dira, %2arekin. Bizitzako Aroak eta Etxea eta ingurua doaz hurrengo, %3arekin. Ondoren, Jolasak, % 4arekin eta azkenik Nekazaritza, Abeltzaintza eta Artzaintzari buruzkoak, % 6arekin.

Aldizkarian argitaratu diren beste arlo batzuetako artikuluak gehiengoak dira. Hainbat arlo etnografikoei buruzko artikuluak %15arekin dira gehiengoak. Ondoren, Erljioetasuna eta sineskerak jasotzen dituenak, %13arekin, hurrengo eta azkenengo izango den tomoari buruzko informazioa jaso-

tzen du hainbaten. Baita, %13arekin Bibliografia bereziak. Metodologia etnografikoari buruzkoak %12 dira, Ohiko lan eta lanbideei buruzkoak %9. Ondoren, hizkuntza eta etnotestoak, %8arekin, kronikak % 7arekin eta azkenik, kanta eta musikari buruz jasotakoak % 1arekin dira gutxien argitaratu diren gaiak.


Ikerketak eskualdeka

Aipatu ditugun lanak, Atlaserako egindakoez gain, honako Bizkaiko eskualdeei buruzko ikerketak jaso ditu Etniker Bizkaia aldizkariak. Hala nola, Busturian Bermeo, Mundaka; Arratian Zeanuri, Gorbeia, Zeberio, Aramotz, Bedia; Arratia-Nerbioi; Enkarterriak; Durangaldea; Bilbo eta Bilbo ingurua; Markina Xemein; Txorierri, Mungia aldea.



Grafiko 2. Ikerketak eskualdeka.

Grafikoan ikus daitekenez, Arratiako eskualdean egin dira ikerketarik gehien, guztien artean % 24a da ea ehuneko laurdena egiten duena. Ondoren, Enkarterriak dira % 21arekin segitzen dutenak, eta gero, Durangaldean egin direnak hurrenez hurren jarraituta % 19arekin. Hiru eskualdeen artean Bizkaiko lurraldearen % 64a egiten dute.




Mapa 1. Ikerketa etnografikoak egin diren Bizkaiko herriak.

Mapa honetan modu grafikoan agertzen dira Bizkaiko lurraldean Etniker taldeetako ikerlariek egindako lanen kokapena. Honetan, On Jose Migelen galdeketa egin diren udalerriak, zein beste hainbat herritan eta auzotan egin diren ikerketa lokalagoak jaso dira.

Argitaratze hizkuntza

On Jose Migelek XX. mendearen hasieran, Euskal Herria nazioartean erakusteko herria zela pentsatzen zuen. Berak hainbat hizkuntza zekien eta Europako hainbat kongresotan Euskal Herriaren ezaugarriak erakusteko haien hizkuntzak erabili zituen, frantsesa, alemaniera eta argi zeukan nazio artean ezagunak izateko erderaren baten idatzi eta argitaratu behar zela. Horrek argitaratze politika zehatza bultzatu zuen, eta erderaz argitaratzeari ekin zion. Dena den, hainbat ikerlariek egindako ekarpenak euskaraz izan dira. Hona hemen Etniker Bizkaia aldizkarian argitaratutako lanen hizkuntza profila.



Grafiko 3. Argitaratze hizkuntza.

Beraz, grafikoan ikus daitekenez, erabili izan diren hizkuntzak euskara eta gaztelera dira. Argitaratu diren lanen herena euskaraz izan da, eta bi heren, espainolez.

Ikerlariak

Ikerketa etnografikoa herri edo auzo batekin lotuta dago, oinarrizko ikerketa egiten denean. Horretara Etnikerreko ikerlariak egin dituzten lanak, Bizkaiko hainbat herritako bizi moduak jasotzen dituzte. Herri batzuetan ikerlari batek baino gehiagok egin dute lan, besteetan, bakarrak. Hurrengo taulan ikertu diren herrien izenak eta bertan aritu izan diren ikerlariak jasotzen dira.

Ikertutako herria edo eskualdea	Ikerlariak
Abadiño	Rosa M ^a Ardanza Mendilibar, Angeles Mendilibar.
Amorebieta-Etxano, Zornotza	Jose M ^a Etxebarria Lejarraga, Malen Mendieta
Basauri-San Migel	Elena Gonzalez Gandul
Bermeo	Anton Erkoreka Barrena, Jesus Urkidi
Bilbo	Roberto Aretxaga, , Mikel Ugarte, Jose M ^a Pitarke (Begoña), Juan Jose Larrea (Deustu), Amaia Arregi Martinez
Busturia	Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga

Durangaldea	Gurutzi Arregi Azpeitia
Ea-Bedarona	Esther Korta
Gernika aldea (Ajangiz, Ajuria, Arteaga, Gernika, Nabarniz)	Gorka Aurre, Segundo Oar-Arteta
Galdames	Carlos Glaria Garcia
Getxo	Jon Elorriaga Garmendia
Karrantza	Luis Manuel Peña Cerro, Miguel Sabino Diaz, Juan Cordón
Lezama	Gurutze Ezkurdia Arteaga
Lemoiz Andraka-Armitza	Jose M ^a Hormaza
Morga	Jose Etxegarai
Mundaka	Jon Kortazar
Muskiz	Rodolfo Mardones Zorrilla
Muxika-Gorozika	Maria Angeles Alberdi Legarra
Ondarroa	Andoni Basterretxea Irusta
Orozko	Edurne Romarate
Otxandio	Jon Astigarraga (Anboto-inguruak)
Plentzia	Iñaki Bengoetxea Larrinaga
Portugalete	Unai, Xabier eta Loyola Martinez Bilbao
Sopela	Bene Markaida
Trapagaran	Juan Cordon Troyano
Urduliz	Akaitze Kamiruaga
Zamudio	Amagoia Gezuraga Bilbao
Zeanuri	Gurutzi Arregi, Ander Manterola Aldekoa, Jon Urutxurtu, Jesus Antonio Etxezarraga
Zeberio	Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Azken hitza

Etniker taldeen 50. urteurrena ospatzen dugun honetan, Bizkaiko lurraldean egindakoak jasotzen dira labur bada ere, artikuluko honetan. Aipatu beharrekoak hainbat dira, baina ezin ahaztu bidean utzi gaituzten kideak. Ez dela denbora asko, 2019ko maiatzaren 9an, Etniker Bizkaiko lehen-gotariko kidea zen Juan Cordonek utzi gintuen, bat batean eta ixil-ixilik. Hainbat lan utzi dizkigu eta gogoan dugu haren jakin gurea eta irripar lotsati

baina maitagarria. Ondoren, 2020ko maiatzaren 6an Gurutzi Arregik utzi gaitu. Gurutzi taldearen hasieratik antolaketaren ardura zuzena hartuta bizi izan da. Gurutzi etnografiarako bizi izan da, azken egunera arte. Taldearen arimetariko bat izan da, beti lanean, kementsu eta indartsu beste guztiak ikerketari ekiteko animatzen. Bizkaiko lurraldean gainera, ezinbesteko kidea izan da, eta beti izango dugu gure bihotzetan haren umore ona, solaserako gogoa eta lanerako kementa.

Egindakoak eginda, hurrengo tomoari ekin behar diogu, hain zuzen Gurutzik hainbeste ikertu duen gaia lantzeko. Harek egindako ekarpenak, ermiten ikerketan jaso zituen Egutegi tradizionalari buruzko ekarpenak, gaur egun, ezinbestekoak izango ditugu hainbat arlo garatzeko. Eta gainera erlijiotasunari buruzko ikerketek, gaur eguneko egoera laiko honetan, ekarpen paregabeak dira gaia lantzeko. Beraz, hurrengo tomoa bere omenez egitea dagokigu.

Ondoren, Etniker Bizkaiaren urrezko ezteguak ospatzeko, 2023an, egindakoa jaso eta pausatzeko unea hartu beharko da hausnarketa egiteko, mende berriari norabidea bilatzeko eta indar berritzeko. Hala bedi.

Bibliografía-Webgrafia

ARREGI, Gurutzi: «Acta primera, 5-VI- 1976», *Libro de Actas de los Grupos Etniker Euskalerrria*, 2.or.

BARANDIARAN, José Miguel de: «Guía para una encuesta etnográfica», Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. Tomo 7. Pamplona. Institución Príncipe de Viana- Diputación Foral de Navarra, 1975, 277-325 orr.

BEGUIRISTAIN GURPIDE, María Amor: «José Miguel de Barandiaran en la Universidad de Navarra», Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra, ISSN 0590-1871, Año nº 43, Nº 86, 2011, 321-341 orr.

ERKOREKA, Anton: «Euskal Antropologoak eta Etnografoak gaur», Donostia, Antropologiaren Euskal Bilduma, Barandiaran Joxemiel, Kriselu ed. 1988.

<https://www.etniker.com/atlas-etnografico-de-vasconia-grupos-etniker-euskalerrria/>
<https://www.etniker.com/etniker/bizkaia/>